

DEIALDIA

SIRHA
2017

Lyon, Frantzia

Data: 2017ko urtarrilaren 21etik 25era

Tokia: Euroexpo Lyon

Maiztasuna: Bi urtean behin

Sektorea: Banaketa kanal
desberdinetako profesionalak.
Inportatzaileak / esportatzaileak,
txikizkako salmenta, banaketa
handia eta HO. RE. CA kanaleko
espezialistak

Izena emateko epea:
2016ko uztailaren 29a

Informazio gehiago: Nora Goitia
agro@camarabilbao.com

DEIALDI HONETAN:

Azokaren izaera

Parte-hartzeko baldintzak

Parte-hartzeko eredia eta kostua

Eusko Jaurlaritzarekin parte-hartzea

Eskeinitako zerbitzuak

Izen-emateko formularioa

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak, Euskal Elikadura Industria kanpoan sustatzeko ekintzen barruan, hirugarrenez jarraian euskal enpresen parte hartze multzokatua antolatu du **SIRHA 2017** azokan. Nazioarteko Ostalaritza, Catering, Sukaldaritza eta Elikadura Azoka Lyonon izango da.

Eusko Jaurlaritzak SIRHA 2017 azokan **112 m²**-ko gunea izango du **stand indibidualetan** parte hartzeko interesa duten Euskal Elikadura Industriako enpresentzako. Standa Nazioarteko Pabiloian egongo da kokatuta.

Sirha 2017 azokaren Izaera

Erakusketa eremua: 120.000 m² baino gehiago

Erakusketariak 2015ean: 3.045, guztira %16 nazioartekoak.

Bisitariak 2015ean: 189.028 horietatik 25.450 nazioartekoak,
135 herrialdetakoak eta 19.715 chef

Azokaren webgunea: www.sirha.com

Frantzia ondoan dugunez eta horren azpiegiturak direla-eta, estrategikoki kokatuta dago gure esportazioetarako, eta Europako beste herrialdeetarako ate ere bada. Hirurogei milioi inguru laguneko merkatua du, eta lehen helmuga da Espainiako elikagaien esportaziorako; gourmet merkatu nagusietako bat dela esan daiteke, alegia.

Kontserbako elikagaien eta janari prestatuen Frantziako kontsumoa nazioko produkzioa baino handiagoa da; horregatik, etengabe ari dira handitzen horrelako produktuen inportazioak. Arrain kontserbek posizionamendu ona dute. Heltze fasean egon arren, kontsumo maila altuan mantentzeko berezitasuna dute. Plater prestatuen sektorea merkatuko gourmet nitxoan dago, horren kalitate eta prezioagatik. Gozoek eskaera handia dute Frantzian, eta garrantzi handia ematen diote hainbat produkturen jatorriari, kakaoarenari eta txokolateenei besteak beste.

SIRHA azoka nazioarte osoan da garrantzitsua elikagai industriarentzat; profesionalentzat da eta berebiziko garrantzia dute gastronomiak eta gourmet produktuek.

Bi urtean behin izaten da azoka, eta elikadura sektoreko ordezkariak parte hartzen dute, joera eta produktu berriak deskubritzeko, merkatuaren aurrerapenak ikusteko eta hornitzaile berriak ezagutzeko. Elikadurak ez ezik, ostalaritzak eta sukaldaritzak ere leku berezia dute.

Erakusketa eremua: 120.000 m² baino gehiago.

Erakusketariak 2015ean: 3.045 erakusketari, aurreko ekitaldian baino %2 gehiago, guztira %16 erakusketari nazioartekoak.

Bisitariak 2015ean: 89.028 horietatik 25.450 nazioartekoak, 135 herrialdetakoak eta 19.715 chef.

Sariak: Bocuse d'Or, Pastelgintzako Munduko Kopa eta Cateringaren Europako Kopa; beraz, mundu osoko chefak erakartzen ditu azokak, besteak beste.

Azokaren webgunea: www.sirha.com

Parte-hartzeko baldintzak

Joateko konpromisoa Euskal Herrian egindako produktuak Ebaluazio-inkesta

Ekitaldian parte hartu ahal izango dute egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten enpresa produktoreek Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren Elikadura Industrien Erregistroan izena emanda badaude.

Azokaren aurretik:

- Enpresaren ordezkari baten aldetik joateko konpromisoa eta kuota ordaintzea; **beraz, EAEko standean sartuko dela jakinarazten denetik ezingo da ekitaldian baja eman.** Halabeharrezko kasuetan baino ez, Eusko Jaurlaritzak eskubidea erreserbatzen du enpresak aurkeztutako arrazoiak baloratzeko eta, behar bada, ordaindutako zenbatekoaren ehuneko bat itzultzeko.
- Esaten zaien orduan, Azoka irekitzeko bezperan enpresak derrigor egon behar dira merkantzia jasotzeko, eta ekitaldia hasi baino lehenago beraien erakustokien dekorazioa amaitzeko.

Azokan zehar:

- **Euskal Autonomia Erkidegoko produktuak baino ezingo dira erakutsi.** Ezin izango da, inola ere, beste autonomia erkidego batzuetako produktuak aipatu, ezta aurkeztu ere.
- Standean azokako egun guztietan eta zabalik dagoen ordu guztietan eman behar da arreta.
- Azoka amaitzerakoan produktu guztiak behar bezala jaso eta standeko elementuak entregatu, jaso ziren egoera berberetan.

Azokaren ondoren

- **Ebaluazio galdetegia** bete eta eskatzen zaienean entregatu.

Parte hartzeko eredua eta kostua

Parte hartzeko eredua

Parte hartzeko **bi** aukera eskaintzen dira:

- **Stand INDIBIDUALA** eremua
- **Stand BIKOITZA** eremua

SIRHA 2017an, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasunerako Saitetik Euskal Autonomia Erkidegoko lehen sektorearen produktua eraldatu eta merkaturatzen duten enpresen parte hartzea bultzatuko da.

Parte hartzeko kostua

Ondoren ekintzetan **parte hartzeak** dakarren kostua finantzatzeko **diru laguntzetarako egingo den sailkapena** adieraziko dugu.

1. motako Enpresa

Batez ere Euskadiko lehengaiz hornitzen diren enpresak. Enpresak produktuaren jatorria egiaztatu beharko du.

Eusko Jaurlaritzak horrelako enpresentzat emango duen diru laguntza %70ekoa izango da, eta kostuak honela geratzen dira:

Stand Indibiduala:

1.890 € + %21 BEZ = 2.286,90 €

Stand Bikoitza:

3.780 € + %21 BEZ = 4.573,80 €

Oharra: stand bikoitza esleitzeko irizpidea enpresa parte hartzaileen kopurua izango da.

2. motako Enpresa

Euskadin behar duten lehen sektoreko produktorik egon ez eta Euskaditik kanpoko lehengaiak erabiltzen dituzten enpresak.

Eusko Jaurlaritzak horrelako enpresentzat emango duen diru laguntza %50ekoa izango da, eta kostuak honela geratzen dira:

Stand Indibiduala:

3.150 € + %21 BEZ = 3.811,50 €

Stand Bikoitza:

6.300 € + %21 BEZ = 7.623 €

3. motako Enpresa

Batez ere Euskadiko lehengaiz hornitzen EZ diren enpresak, Euskadin behar duten lehen sektoreko produkzioa egonda. Eusko Jaurlaritzak horrelako enpresentzat emango duen diru laguntza %30ekoa izango da, eta kostuak honela geratzen dira:

Stand Indibiduala:

4.420 € + %21 BEZ = 5.348,20 €

Stand Bikoitza:

8.840 € + %21 BEZ = 10.696,40 €

Parte hartzeko kuota bi zatitan ordainduko da, baina faktura bakarra izango da:

- Zenbatekoaren %50 + %21 BEZ izena emateko orduan eta espazioa erreserbatzeko kontzeptuarekin.
- Gainerako zenbatekoa jardunaldia egin baino 60 egun lehenago ordaindu beharko da.
- Zenbateko osoa jasoko duen faktura bakarra espazio erreserbaren lehen ordainketa jasotakoan bidaliko da

Eusko Jaurlaritzarekin parte-hartzea

Izen-emate formularioa beteta

Ordainagiria

Izena emateko azken eguna: 2016ko uztailaren 29an

Parte hartzeko interesa baduzu, eta leku kopurua mugatua denez, gomendatzen dugu izena emateko fitxa behar bezala beteta lehenbailehen bidaltzeko e-mail bidez, Nora Goitiari: **agro@camarabilbao.com**

Enpresa parte hartzaileen hautaketa izena emateak jasotzeko hurrenkeraren arabera egingo da. Zure eskaria kontuan hartzeko, honakoa aurkeztu behar duzu:

1. Izen-emate formularioa bete

Informazio horretatik bertatik transkribatuko dira datuak azokaren katalogo ofizialerako eta sustapenerako lantzen diren gainerako elementuetarako.

Izen-emate formularioa



2. Izena emateko kuotaren ordainagiria bidali

Ordainagiria Nora Goitiari zuzenduta bidali behar da emailaz: **agro@camarabilbao.com**

Ordainketa banku transferentzia bidez egingo da:

Kontzeptua: "Enpresaren izena + SIRHA 2017"

Kontu zenbakia: ES49-3035-0179-61-1791069900 HAZI Fundazioaren izenean (LABORAL KUTXA). Laboral Kutxaren Bica: CLPEES2MXXX.

Izena emateko azken eguna: 2016ko uztailaren 29a

Eusko Jaurlaritzarekin parte-hartzea

HAZI Fundazioko Finantza Departamentuak dagokion **zenbatekoaren faktura igorriko dizue, izena emateko epea bukatutakoan parte hartzea baieztatu eta gero.**

GARRANTZITSUA:

Eskatutako dokumentuak bidaltzeak EZ DU ESAN NAHI enpresak Eusko Jaurlaritzaren pabiloian parte hartuko duela; Sailak izen ematea onartu duen edo ez jakinaraziko dio enpresa bakoitzari.

ENPRESAK FAKTURA JASO ETA GERO, HAU DA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO PABILOIAN SARTU DELAKO JAKINARAZPENA JASO ETA GERO, PARTE HARTZEARI UKO EGITEN BADIO, ORDAINDUTAKOAREN %100 GALDUKO DU.

Halabeharrezko kasuetan baino ez, antolakuntzak eskubidea erreserbatzen du enpresak aurkeztutako arrazoiak baloratzeko eta, behar bada, ordaindutako zenbatekoaren ehuneko bat itzultzeko.

Enpresek ordaindutako zenbatekoak itzultzeko kasu hauek baino ez dira kontuan hartzen:

- Enpresa erakusleek eskatutako gunea Azokaren Antolakuntzak Eusko Jaurlaritzari esleitutako gunea baino handiagoa bada, hautatu ez diren enpresek eskubidea izango dute aurrez izena emateko kuota itzultzeko.
- Eusko Jaurlaritzak halabeharrez edo nahiko partaiderik ez dagoelako parte hartzea bertan behera uzten badu, enpresek eskubidea izango dute ordaindutakoaren %100 jasotzeko.

Eskeinitako zerbitzuak

- 1) Eremuaren kontratazioa
- 2) Dekorazioa
- 3) Merkantiaren garraioa

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak, HAZIren bitartez, hurrengo zerbitzuak eskainiko ditu:

Eremuaren kontratazioa

Espazio promozional batekin parte hartuko da, eta hori enpresa ko-erakusle bakoitzerako pertsonalizatutako stand indibidualetan eta bikoitzetan banatuko da.

Dekorazioa

Standa hornitzeko dekorazioa eta oinarrizko altzariak uniformeak izango dira EAEko standeko erakusle guztientzat, eta, edonola ere, hau egongo da:

Stand Indibidualean: Mahaia eta 4 aulki, erakusmahaia, enpresa erakuslearen errotulua, konexio elektrikoa, hozkailudun biltegia .

Stand Bikoitza: Bi mahai eta 8 aulki, 2 erakusmahai, enpresa erakuslearen errotulua, konexio elektrikoa, 2 hozkailudun biltegia.

Oharra: *Stand indibidual bakoitzean ez dira harraskak sartuko. Gune komun batean jarriko dira. Harraska norberaren standean jarri nahi duten enpresek stand muntatzeko arduraren erantzukizuna duen enpresari dagokion kopurua ordaindu beharko diote.*

Standetako oinarrizko altzarietan, elementu elektrikoetan edo elektrizitateko beharretan egin beharreko aldaketa oro, horien hazkundera edo aldaketa eragiten badu, ko-erakusle bakoitzak zuzenean kontratatuko du, eta bere gain hartuko du gehitutako kostua dekoratzailearekin, zeinak zuzenean fakturatu dion zerbitzua.

Merkataritzaren garraioa

Eusko Jaurlaritzak merkantiaren bidalketa bateratu bat antolatuko du esleitutako garraiolari ofizialak adierazten duen lekutik merkantzia standean bertan entregatu arte.

Garraiolariak egingo du merkantzia bidaltzearen kostuaren faktura eta enpresa erakusleak ordainduko du oso-osorik.

Bere garaian, esleipena duen enpresa garraiolariaren datuak emango dira.

Esaten zaien orduan, enpresak derrigor egon behar dira merkantzia jasotzeko, eta beraien erakustokien dekorazioa amaitzeko, ekitaldia hasi baino lehenago. Adierazitako orduan merkantzia jasotzera agertzen ez diren enpresek zigorra jasoko dute.

Eskeinitako zerbitzuak

- 4) Hotz kamerak eta beste etxetresna elektriko batzuk
- 5) Azokaren katalogo ofizialean sartzea
- 6) Standa mantentzeko lanak (garbiketa, elektrizitatea, ura, etab.)

Hotz kamerak eta beste etxetresna elektriko batzuk

El alquiler de las cámaras de frío y otros electrodomésticos correrá por cuenta del expositor.

No obstante, el Gobierno Vasco coordinará la contratación de este servicio, que será facturado directamente por el proveedor a la empresa expositora.

Azokaren katalogo ofizialean sartzea

El Gobierno Vasco realizará los trámites necesarios para que todas las empresas expositoras que acudan a la feria aparezcan inscritas en el catálogo oficial que edita la organización ferial y donde aparecen registrados todos los expositores del evento (figurarán los datos recogidos en el formulario de inscripción).

Standa mantentzeko lanak (garbiketa, elektrizitatea, ura, etab.)

Eusko Jaurlaritzak bere gain hartzen ditu garbiketako zerbitzu orokorrak, elektrizitatea, ura, etab., eta, oro har, standa egoki mantentzeko lanak.

Stand bakoitzerako potentzia elektrikoko tope batzuk eta gehienezko kontsumo batzuk egongo dira, eta horren berri jakinaraziko zaie ko-erakusleei parte hartzea prestatzeko tramiteak hasten direnean. Enpresa erakusleren batek tope horiek gaintu nahi baditu, kostua bere gain hartu beharko du.